

PROBA ESPEZIFIKOA

201&ko PROBA

HISTORIA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

HISTORIA GENERAL

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1. TESTU-IRUZKINA. (4 puntu).

1945eko otsailaren 11.

Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko Komisarioen Kontseiluko lehendakariak, Erresuma Batuko lehen ministroak eta Ameriketako Estatu Batuetako lehendakariak elkarri kontsulta egin diote beren herrialdeetako eta Europa askatuko herrien interes komunen inguruan.

Adierazten dute adostu dutela elkarrekin koordinatzea, Europa askatuan ezegonkortasun politikoak dirauen bitartean, beren hiru Gobernuen jardunbidea, zeinaren helburua baita Europan Alemania naziaren menderakuntzatik askatutako herriei eta Ardatzaren lehengo sateliteetako herriei laguntzea bitarteko demokratikoen bidez beren zailtasun politiko eta ekonomiko larrienak konpontzen.

Europar ordena berrezartzea eta nazioetako bizitza ekonomikoa berreraikitzea lortu behar da, herri askatuei nazismoaren eta faxismoaren azken arrastoak desagiteko eta berek hautatutako instituzio demokratikoak eraikitzeko aukera emango dieten bitartekoak erabiliz. Atlantikoko Gutunaren printzipioetariko bat da herri guztiek eskubidea izatea zer gobernu motaren mende bizi nahi duten hautatzeko, eta burujabetza- eta autonomia-eskubideak, beren erasotzaileek indarrez kendu zizkietenak, berrezartzeko.

Herri askatuek eskubide horiek erabili ahal izateko kondizioak ezartzeko, hiru Gobernuak elkarrekin lagunduko diete Europako estatu askatuetako edo Ardatzaren lehengo sateliteetako herriei, behar beste aldiz, hau lortzearren:

1. Herrialdearen barnealdean bakea ziurtatzea;
2. Urgentziako neurriak hartzea beharrean dauden herriei laguntzeko;
3. Behin-behineko gobernuak ezartzea, populazioaren elementu demokratiko guztiak zabal ordezkatzeko dituztenak eta hauteskunde libre bidez herri-borondatea islatuko duten gobernuak lehenbailehen antolatuko dituztenak. Azkenik, behar izanez gero, holako hauteskundeak egiteko bidea erraztea (...).

W. S. Churchill. F.D. Roosevelt. J. Stalin.



ERANTZUN EZAZU TESTUARI DAGOKIONEZ:

Idea nagusia.

Ezaugarriak.

Testuingurua.

Garapena eta iruzkina.

Iruzkin pertsonala eta konklusioak.

2. Ordenatu kronologikoki gertakari hauek. (1 puntu).

NATOn esku-hartzea Serbian (Kosovoko gerra).

A. Sadat Egiptoko lehendakariaren hilketa.

Jaltako Konferentzia.

Txekoslovakiako belusezko iraultza.

Aljeriaren independentzia.

TalibaneK Kabul hartzea.

Videla jeneralaren estatu-kolpea Argentinan.

Yom Kippur Gerra.

3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2 puntu).





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2012

HISTORIA GENERAL

4. Definitu labur termino hauek (3 aukeratu behar dituzu proposatzen diren 6 terminoen artetik). (Ariketa osoa: 3 puntu / 1 puntu definizio bakoitzeko)

- a) Ekonomia planifikatua.
- b) Sobieta.
- c) Korporatibismoa.
- d) Antisemitismoa.
- e) Muga-zergak kentzea.
- f) Urre-patroia.



**EBAZPENA: HISTORIA OROKORRA
(2012ko maiatza)**

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1. TESTU-IRUZKINA. (4 puntu).

1945eko otsailaren 11.

Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko Komisarioen Kontseiluko lehendakariak, Erresuma Batuko lehen ministroak eta Ameriketako Estatu Batuetako lehendakariak elkarri kontsulta egin diote beren herrialdeetako eta Europa askatuko herrien interes komunen inguruan.

Adierazten dute adostu dutela elkarrekin koordinatzea, Europa askatuan ezegonkortasun politikoak dirauen bitartean, beren hiru Gobernuen jardunbidea, zeinaren helburua baita Europan Alemania naziaren menderakuntzatik askatutako herriei eta Ardatzaren lehengo sateliteetako herriei laguntzea bitarteko demokratikoen bidez beren zailtasun politiko eta ekonomiko larrienak konpontzen.

Europar ordena berrezartzea eta nazioetako bizitza ekonomikoa berreraikitzea lortu behar da, herri askatuei nazismoaren eta faxismoaren azken arrastoak desagiteko eta berek hautatutako instituzio demokratikoak eraikitzeo aukera emango dieten bitartekoak erabiliz. Atlantikoko Gutunaren printzipioetariko bat da herri guztiek eskubidea izatea zer gobernu motaren mende bizi nahi duten hautatzeko, eta burujabetza- eta autonomia-eskubideak, beren erasotzaileek indarrez kendu zizkietenak, berrezartzeko.

Herri askatuek eskubide horiek erabili ahal izateko kondizioak ezartzeko, hiru Gobernuak elkarrekin lagunduko diete Europako estatu askatuetako edo Ardatzaren lehengo sateliteetako herriei, behar beste aldiz, hau lortzearren:

1. Herrialdearen barnealdean bakea ziurtatzea;
2. Urgentziako neurriak hartzea beharrean dauden herriei laguntzeko;
3. Behin-behineko gobernuak ezartzea, populazioaren elementu demokratiko guztiak zabal ordezkatzeko dituztenak eta hauteskunde libre bidez herri-borondatea islatuko duten gobernuak lehenbailehen antolatuko dituztenak. Azkenik, behar izanez gero, holako hauteskundeak egiteko bidea erraztea. (...).

W. S. Churchill. F.D. Roosevelt. J. Stalin.



ERANTZUN EZAZU TESTUARI DAGOKIONEZ:

Ideia nagusia.

Erresuma Batuaren, Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren ordezkariak konpromisoa hartzen dute nazien eta faxisten mende izandako herriei normaltasun politiko eta ekonomikora iristen laguntzeko, herri horiei zer gobernu motaren mende bizi nahi duten hautatu ahal izateko burujabetza-eta autonomia-eskubidea aitortzen dien ikuspegitik.

Ezaugarriak.

Testu mota: testu juridiko bat da, nazioarteko hitzarmen guztiak diren moduan, eta, printzipioz, sinatzaileak lotzen dituena.

Egileak: Roosevelt lehendakaria, W. Churchill lehen ministro britainiarra eta J. Stalin estatu sobietarreko burua.

Testuingurua.

1945eko otsailean indar aliatuek bazekiten gerraren amaiera gertu zegoela, eta Jaltan bildu ziren, Krimea penintsulan, bakea eta gerraondoa prestatzeko. Lehenago, Teheranen bilduak ziren, eta berriro ere Postdamen bilduko ziren. Bigarren Mundu Gerra ez zen alde askoren arteko bake bat izango, Lehenarekin gertatu zen bezala; aitzitik, herrialde handiek bakarrik prestatuko zuten.

Garapena eta iruzkina

Nazioarteko hitzarmenak adierazten dituzten testuek, bake-hitzarmenek eta kidekoek bezala, ez dute aukera handirik uzten iruzkinak egiteko, sinatzaileek esan nahi duten guztia esaten baitute. Hala, agiriaren erredakzioa negoziatu egiten da, sinatzaileek beren nahiak han islatuta ikus ditzaten. Horrelako agiriarekin egin daitekeena zera da, sinatze-prozesuaren inguruko gorabeherak aztertzea, egileei buruz jardutea, beste itun batzuei egiten zaizkien aipamenak argitzea, akordioen eragina nabaritutako duten herrialdeetariko batzuk aipatzea, eta, batez ere, egiaztatzea haien gauzatzea adostutako norabidean joan zen ala ez.

Jaltan, Erresuma Batuaren, Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren ordezkariak bildu ziren. Eta goren mailako ordezkariak dira: Churchill, Roosevelt eta Stalin. Lehen-lehenik, bi puntuk ematen dute atentzioa: bilera gerra amaitu aurretik egin izana, eta Frantzia ez egotea. Lehenengo puntuak badu bere azalpena, aurretik (Teherango Konferentzian) erabakia hartua baitzuten Alemania baldintzarik gabe errenditzea lortu arte gerran



jarraitzeko. Egoera horretan, bakea ez da negoziatzen; ezarri egiten da. Frantzia ez egoteak adierazten du zer protagonismo eta zer erantzukizun hartu zuten hiru potentzia sinatzaileek gerra- eta bake-kontuen zuzendaritzan.

Daukagun testu zatiak erakusten du zer akordio hartu ziren nazien eta faxisten mende egondako herrien bizimodu politiko eta ekonomikoa normalizatzeko gobernu-forma hautatzeko askatasunean oinarriturik, hau da, jokabide demokratikoetan oinarriturik. Herri horien borondatea betetzea errazteko, hiru sinatzaileek konpromisoa hartu zuten herrialdeen barne-bakea ziurtatzeko, askatuei laguntzeko eta hauteskunde demokratikoak prestatuko zituzten behin-behineko gobernuak ezartzeko. Erresuma Batuen ustez, printzipio hori ez zen aplikatzekoa bere kolonietan, ezta Europako beste herrialde batzuenetan ere. Baina garaiak aldatuak ziren.

Aipatzen diren herriak ez dira Alemania edo Italia bakarrik, baizik eta Ardatzaren satelite izandakoak ere, hala nola Hungaria, Errumania, Bulgaria edo Albania, edo indarrez konkistatuak izan zirenak, hala nola Grezia edo Jugoslavia.

Testuan Atlantikoko Gutuna aipatzen da. Rooseveltek eta Churchillek 1941ean iritsi zuten akordioa da gutun hori. Han biltzen dira nazismoa desagerrarazi eta Hirugarren Mundu Gerra saihestearren etorkizuneko politika angloamerikarra gidatuko duten planteamenduak.

Azkenik, aipatzekoa da maiz kontsideratu ohi dela Jaltako Konferentzian erabaki zela mundua bloketan zatitzea. Ez dago akordio horietan horri buruzko aipamenik, ordea. Gertaeren geroko bilakaerak ekarri zuen zatiketa hura.

Iruzkin pertsonala eta konklusioak.

Aipatutako zatiaz gainera, Jaltan beste erabaki batzuk ere hartu ziren, eta haietako batzuek ekarri zuten lehenago aipatutako blokeei buruzko okerreko ideia hura. Aipatzekoak dira Alemania lau eragin-zonatan banatzea erabakitzea (Frantziaren mende egongo zen haietako bat); Poloniaren mugak berregitea, hala ekialdean nola mendebaldean; Nazio Batuen Erakundea sortzeko konferentzia bat egitea adostea (San Frantziskon egin zen 1945ean).

Gertaeren bilakaerak, gero, batzuek beti ezin adiskidetuzkotzat jotzen zituzten herrialdeen arteko ituna ezandarazi zuten. Estatu Batuak eta SESB bi politika- eta gizarte-ereduren buru bihurtu ziren; goganbeharrez begiratuko diote elkarri, eta "gerra hotza" izena emango zitzaion etorkizuna ekarri zuten.



2. Ordenatu kronologikoki gertakari hauek. (1 puntu).

NATOren esku-hartzea Serbian (Kosovoko gerra).

A. Sadat Egiptoko lehendakariaren hilketa.

Jaltako Konferentzia.

Txekoslovakiako belusezko iraultza.

Aljeriaren independentzia.

Talibanek Kabul hartzea.

Videla jeneralaren estatu-kolpea Argentinan.

Yom Kippur Gerra.

Erantzuna:

1945 Jaltako Konferentzia.

1962 Aljeriaren independentzia.

1973 Yom Kippur Gerra.

1976 Videla jeneralaren estatu-kolpea Argentinan.

1981 Sadat Egiptoko lehendakariaren hilketa.

1989 Txekoslovakiako belusezko iraultza.

1996 Talibanek Kabul hartzea.

1999 NATOren esku-hartzea Serbian. (Kosovoko gerra).

3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2 puntu).





Erantzuna:

Mapak Errusia postsobietarraren egoera adierazten du. Minskeko 1991ko abenduaren 8ko akordioa Estatu Independenteen Erkidegoaren sortze-agiria da. Nazioarteko eskubidedun subjektu gisa eta errealitate geopolitiko gisa Sobietar Batasuna jada existitzen ez zela egiaztaturik, Errusia, Ukraina eta Bielorrusia eslaviar estatuetakoko lehendakariak erakunde politiko berri hori sortzea eta sobietar errepublika federatu izandakoetara zabaltzea erabaki zuten. Haietako lauk uko egin zioten: Baltikoko hiru estatuak (Estonia, Letonia eta Lituania) Europar Batasunera hurbiltzeko prozesu bati ekin ziotenak, eta Georgia. Zortzik onartu egin zuten: Moldavia, Armenia eta tradizio eta kultura musulmaneko sei errepublikak (Azerbaijan, Kazakhstan, Kirgizistan, Tajikistan, Turkmenistan eta Uzbekistan).

4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 3 puntu / Puntu bat definizio bakoitzeko).

- a) **Ekonomia planifikatua.**
- b) **Sobieta.**
- c) **Korporatibismoa.**
- d) Antisemitismoa.
- e) **Muga-zergak kentzea.**
- f) **Urre-patroia**

Erantzuna:

a) Ekonomia planifikatua.

Ekonomia-jarduerak estatuak antolatuz dauden sistema mota. Estatuak irizpide politiko eta sozialak erabiliz jardun ohi du. Ekonomia mota horretan, merkatuak ez du bere legea ezartzen.

b) Sobieta.

Errusieraz "kontseilua" esan nahi du. Praktika iraultzailean, ekintzak koordinatzen eta zuzentzen zituzten komiteak izendatzeko erabiltzen zen. Estatu berrian, ordezkarien biltzarra ere izendatzen zuen.

c) Korporatibismoa.

Italia faxistaren bizitza ekonomikoa antolatzeko modua. Produkzio-adarrak "korporaziotan" zatituta zeuden; haietako bakoitzean, langileak eta



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2012

HISTORIA GENERAL

enpresaburuak elkartzen ziren, eta, Gobernuaren ordezkariekin batera, lan-baldintzak erabakitzen zituen. Hala, klase-borrokari amaiera emango ziotela uste zuten.

d) Antisemitismoa.

Idea arrazistak praktikan jartzea eta juduen aurka aplikatzea da. Juduak jazartzera iristen da. Nazismoaren oinarri ideologikoetako bat izan zen.

e) Muga-zergak kentzea.

Estatu baten barneko merkatuan atzerriko produktuei ezartzen zaizkien muga-zergak kentzea da, inportazioak —eta, beraz, produktu horiek saltzea— errazteko.

f) Urre-patroia.

Nazioarteko diru-sistema, estatu bakoitzaren diruak urre kantitate jakin batekin halako baliokidetza bat izan beharra ezartzen duena.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2012

HISTORIA GENERAL

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
ERLAZIOA**

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	1.1; 1.3
2	1.1; 1.2; 3.1; 4.1; 5.1
3	4.3
4	1.1; 2.1; 3.1